


Bezeroekiko harremana



Iada ditugun bezeroekin harremanetan jartzeko tresna nagusia sare sozialak izango dira. Modu honetan, gure bezeroak gurekin komunikatzeko aukera erraza izango dute; kexak aurkezteko, dudak argitzeko edo gure aplikazioaren inguruko informazio ezberdina eskuratzeko... Horrez gain, gmail kontu bat eta telefono propio bat ere edukiko ditugu, aurretik azaldu ditugun arrazoi berdinentzat, bezeroekiko arretan kontratatuko ditugun esku egongo direnak.

Horrez gain, bezeroengandik, *feedback*-a jaso dezagun, aplikazioan bertan egongo da aukera zerbitzuari kalifikazio bat emateko, izarrak, Otik 5era. Gainera, emandako balorazioa arrazoitzeko aukera emango diegu leku berean.





...

...

Bezeroekiko harremana



Gure bezero moduan zenbait denbora igaroteak onura batzuk jasotzea suposatuko du. Alde batetik, gure aplikazioaren bitartez egindako erosketak bakoitzeko (prezioaren arabera), puntu batzuk jasoko lituzkete. Hauen bitartez, deskontu batzuk jasoko dituzte hiru hilabetean behin, aplikazioko erosketetan aplikatuko direnak. Sei hilabetez bazkide izan ondoren egongo da puntuak jasotzen hasteko aukera.



Bestalde, urtebetez gure aplikazioa erabiltzeagatik, zozketa ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, hiru hilabetean behin. Sariak, deskontuak, produktu ezberdinak... izango dira.